



**Arartekoaren ebazpena, 2011ko martxoaren 3koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean irakasleen ordezkapenetarako hautagaien poltsan sartzeko lehiaketari dagokion jarduketa amaitzeko.**

## **Aurrekariak**

1. 2009ko maiatzean, lehiaketa publikoa iragarri zen UPV / EHU irakasleen ordezkapen premiak estaltzeko poltsa berrietan hautagaiak sartzeko.

Interesdun bat ordezkapenak egiteko Landareen Biologia eta Ekologia Sailean / Ezagutza Arloa: Ekologia (2. zenb. Ordezkapen poltsa - Deialdia: 2009/2011), Kexan adierazitakoaren arabera, interesdun honek, haren hautagaitza baztertu zela jakin ondoren, zegokion gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen irakasleen errektoreordearen aurrean. Ildo horretan, haren curriculumaren ebaluazioa zehazki nola bideratu zen jakin nahi zuela eskatu zuen, bereziki kontuan hartuta merezimenduen afinitate handiagoa edo txikiagoaren arabera aplikatutako koefizienteak.

Errekurtsio hori ezetsi egin zen 2010eko urtarrilaren 11ko Ebazpenaren bitartez. Ebazpen horren hirugarren oinarrian honakoa argudiatu zen:

De conformidad con lo establecido en el art. 82.1 de la mencionada Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Común, se procedió a solicitar a la Comisión de Sustituciones del Personal Docente de dicho Departamento un informe relativo a las afirmaciones efectuadas por el recurrente, el cual obra en el expediente y resulta del siguiente tenor literal:

*“Que se ha aplicado un coeficiente de 0,1 a la investigación y la docencia llevadas a cabo en áreas de Biología no pertenecientes al Departamento de Biología Vegetal y Ecología y de 0,3 a las áreas de Botánica y Fisiología Vegetal que comparten Departamento con Ecología y que se ha considerado, por tanto, más afines a ella, que fue, en principio, el criterio que se utilizó para juntarlas en un mismo Departamento.*

(...)

*La Ecología es una disciplina interdisciplinaria, que abarca aspectos del medio físico y biótico. Esto hace que en los proyectos e investigación sea frecuente la colaboración con otros especialistas, que incluye hidrólogos, físicos, químicos, botánicos o zoólogos, entre otros.*

*Por esa razón, la demandante participa en un proyecto con ecólogos, para aportar su experiencia en la fauna de aguas continentales, lo que no implica que esté familiarizada con la docencia impartida por el área de Ecología. Por*



*la misma razón, los químicos que hacen los análisis del medio físico podrían alegar que investigan en Ecología y que son aptos para impartir esta docencia.*

*Alega la demandante que las evaluaciones positivas que posee de UNIQUAL son en el campo de Ciencias Experimentales, pero en este campo entran también las matemáticas, física, etc., disciplinas todas ellas muy ajenas a la docencia de la Ecología.*

*Las revistas publican artículos de varios campos, cuyo conjunto es de temática más amplia que la de las áreas docentes. Una revista llamada Hydrobiología puede contener artículos de la química del agua, aspectos de radiación en el agua, junto a otros de taxonomía zoológica y botánica, lo cual no implica que sean ecólogos."*

Hala, arduradun horrek erabilitako baremazioaren irizpide orokorrak baino ez zituen jakinarazi, dagokion ebaluazio batzordeak adierazitakoari jarraiki, ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendak kudeatze aldera onartutako araudian ezartzen den ponderatzeko aukera aplikatuz eta interesdunaren curriculum zehatza aintzat hartzea saihestu zuen.

2. Kexa aurkeztu ondoren eta erakunde honen parte hartzeko aukera baloratu ostean, bertan sortutako hainbat gai direla-eta, erakunde honek erabaki zuen interesdunak hainbatetan eskatu dituen motibazioaren eskakizunen jarduketan jartzea arreta.

Horregatik, eta honezkero antzeko izaerako gaietan ohikoa denez, erakunde honetatik UPV / EHUko idazkari nagusiaren iritzia menpe ipini genuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren jarrera horren erabakietako batean bermeen galera izan zitekeena hauteman zuen, interesdunentzat honakoa ekar zezakeena - eta hitzez hitz jasotzen ditugu erabilitako hitzak - *mantener en la penumbra la razón por la que se atribuye una determinada puntuación a un concreto mérito en tanto que equivale a imposibilitar el acceso del interesado a los mecanismos que pueden acreditar la existencia de error técnico.* ("Arartekoaren ebazpena, 2011ko otsailaren 23koa. Horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle erantsi gisa egiaztatzeko ebaluazio eskaerari buruzko jardura amaitzen da.")

Ildo horretan, azpimarratu nahi dugu interesdunak, berak zioenaren arabera, jarraitzen zuela ezagutu barik zein zen bere curriculum osatzen duten merezimenduei egindako irizpide edo parametro orokorren benetako aplikazioa, deitutako poltsarekin zuten afinitate handiagoa edo txikiagoaren arabera. Horren harira eta adibide gisa, adierazi genuen interesdunak zalantzan jarri zuela merezimendu berberak (Ekologia Sailarekin batera egindako proiektuaren ondoriozko jakinarazpenak) tratamendu desberdina (haren kasuan) jaso izana: 0,1 koefizientea aplikatu da eta, egilekidearen kasuan, berriz: batere ez) desberdintasun horiek ziurtatzen zituzten arrazoirik azaldu gabe, arestian





jasotako aitorten generikoaz haratago, aurkeztutako merezimendua eta egiaztatutakoa zehatz-mehatz berbera denean.

3. Egiteke dagoen lankidetzaren derrigorrezko errekerimenduaren ondoren, UPV / EHUko idazkari nagusiak, irakasleen errektoreordearen alde aurreko txosten batean oinarrituta, ez du onartzen, hautagaitza honen kasuan, motibazio ezan erori izana jarraian jasotako oinarrietan analizatuko diren arrazoiengatik.

### Oinarriak.

1. Irakasleen errektoreordeak erabilitako argudioen artean nabarmena da, bestela ezin zitekeen bezala, *"diskrezionalitate teknikoa"* deiturikoari dagokiona. Hori dela-eta, emandako txostenak honakoa adierazten du:

*"Como es opinión unánime en la Jurisprudencia (por todas v. STS 14-07-2000), en la actividad de la Comisión Evaluadora, en la medida en que se trata de un órgano especializado en un saber determinado, se ha aceptado un amplio margen de apreciación, que se ha venido denominando "discrecionalidad técnica"*

*. Dicha discrecionalidad -que no arbitrariedad, de acuerdo con lo antedicho- hace que la posibilidad de control de la actuación de la Comisión Evaluadora se limite a la observancia de los actos reglados y a los posibles errores ostensibles o manifiestos, con lo que "consiguientemente, deja fuera de ese limitado control posible aquellas pretensiones de los interesados que sólo postulen una evaluación alternativa a la del órgano calificador, pero moviéndose también dentro de ese espacio de libre apreciación, y no estén sustentadas con un posible error manifiesto" (STS 14-07-2000).*

*En consecuencia, sobre las alegaciones referentes a la estricta evaluación de méritos, así como a la adopción de criterios de valoración, siempre que se encuentren dentro de los márgenes permitidos por el Reglamento para la gestión de la lista de candidatas a sustituciones de personal docente, nos remitimos al informe de la Secretaria de la Comisión.*

*En cuanto a dichos criterios, indicar que los mismos son hechos públicos en cada convocatoria. En el caso que nos ocupa, el Baremo de Méritos ya indicaba, en consonancia con el Reglamento de Gestión de Bolsas Docentes, las ponderaciones a efectuar en función de la adecuación de los méritos de los concursantes a las características del área de conocimiento."*

2. Benetan eta arduradun honek adierazitakoarekin bat eginez, uste dugu interesgarria dela hitzez hitz errepikatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia

Auzitegi Gorenaren orain gutxiko erabaki baten oinarrietako batek jasotzen dituen gogoetak gai honen gainean (2010eko martxoaren 15eko epaia - JUR 2010/405144), irakasleak kontratatzeko Ebaluazio batzorde baten jarduerari buruzkoa:

*“CUARTO.- Para entrar en el análisis de la valoración de los méritos, deben recordarse los límites del control jurisdiccional en el ejercicio de la discrecionalidad técnica en casos como el presente.*

*Importa precisar, en primer término, que dicho control no puede confundirse con el general de la discrecionalidad administrativa que se extiende tanto al control de los elementos reglados de la actuación (atribución normativa de la potestad, competencia del órgano, obligación de motivar y finalidad del acto) como a otros que no lo son (interdicción de la arbitrariedad y sumisión a los principios generales del Derecho). Y ello porque la adecuación de la actividad administrativa al interés general se articula en estos casos mediante mecanismos específicos de los que son exponente la formación de órganos de extracción técnica, que deciden conforme a reglas técnicas propias de diversos órdenes del conocimiento o de la experiencia.*

*Tanto la jurisprudencia como la doctrina han realizado un esfuerzo para que el control judicial de la discrecionalidad sea lo más amplio y efectivo posible, pero siempre se encuentran con el límite de las cuestiones que se resuelven con un juicio fundado en elementos de carácter exclusivamente técnico, que sólo puede ser establecido por un órgano especializado de la Administración y que, en sí, escapa, por su propia naturaleza, al control jurídico que es el único que pueden ejercer los órganos jurisdiccionales.*

*El Tribunal Supremo en Sentencia de 16 de septiembre de 2.009 , al respecto señala que "Esa discrecionalidad técnica reduce las posibilidades del control de dicha actividad evaluadora , que prácticamente estarán constituidas por estos dos básicos supuestos: el de la inobservancia de los elementos reglados - cuando estos existan-, y el del error ostensible o manifiesto; y, consiguientemente, deja fuera de ese limitado control posible a aquellas pretensiones de los interesados que solo postulen una evaluación alternativa a la del órgano calificador, pero moviéndose también dentro de ese aceptado espacio de libre apreciación, y no estén sustentadas con un posible error manifiesto."*

*Es también jurisprudencia reiterada la que ha señalado que las Bases de la Convocatoria son la ley del proceso selectivo y que vinculan tanto a la Administración convocante como al Tribunal Calificador y a los que toman parte en él; también mantiene como reiteración el Tribunal Supremo que la interpretación de los baremos de méritos entran dentro del ámbito de la discrecionalidad técnica de los Tribunales calificadores, en cuanto que son efectuadas por especialistas en la materia."*

3. Hala eta guztiz ere, eta erakunde honetatik behin baino gehiagotan azaldu dugunez, gure aburuz, aurreko planteamendu horrek ezin gaitzake eraman oso ñabardura garrantzitsuaz ez arduratzera, horren inportantzia Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren epai argigarriak azpimarratu egin zuen



(125/2006 epaia, 2006ko otsailaren 22koa). Horrek, Ikerlana Ebaluatzeko Estatuko batzordeak (CNEAI) garatutako ebaluazio lanari buruzko iritzia azaldu zuen, eta aurkaritzarako arrazoietakoa bat hain zuzen, arrazoirik ez izatea zen.

Beraz, erabaki honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenak balizko aurka-egiteen tartea oso estua dela onartu ondoren, zalantzarik gabe baieztatu du erakunde tekniko hauen ebaluazio erabakiek duten ziurtasun usteak ez duela esan nahi men egin ezin zaionik, eta horretarako, arauak iritzi tekniko bat aplikatzerakoan kontuan hartu beharreko faktoretzat hartzen dituen guztien artean balorazio jakin bat emateko arrazoia zehaztu behar dela. Horren harira ohartarazten duenez, meritu jakin bati puntuazio zehatz bat emateko arrazoia ezkutatzea interesduna akats teknikoa dagoela egiaztatzeko aukera eskain diezaioketen mekanismoetara heltzeko oztopo izan daiteke. Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenak adierazi duenez, akats tekniko bat egoteko aukera da erakunde ebaluatzailearen jarduerari kalifikazioa egiteko ezarritako erakundeen berezitasunean eta inpartzialtasunean oinarritutako administrazio jardueraren ziurtasun ustea eskaintzen diona, hala ez balitz ziurtasun huts eta sinplea bailiteke.

Hortaz, Epaitegiak azaldutakoaren arabera bidezkoa da batzorde aholkulariaren txostenaren oinarriak aztertzea, hor topa baitaiteke, jurisprudenziarekin bat etorritik, lehenetsitako parametroen artean zeintzuk ez dituen ebaluatutako behar bezala bete, izan ere, irizpide teknikoaren aplikazioak eskatzen du organo aholkularia araututako parametroetara doitzea, ezin dira horietako bat ere alboratu ezta berri bat erantsi, eta gainera horietara mugatu beharko da bere iritzia osatzeko.

Ardurutzen gaituen kasuari helduta eta espedientearen izapidetzearen bidean bildutako informazioa aztertu ondoren, erakunde honek honakoa erabaki du

### Ondorioa

Gure iritziaren bultzatzaile interesdunari ez zaio batzorde ebaluatzailearen lanari buruzko arrazoi nahikorik eskaini balorazioan agian akats tekniko bat izan dela baztertu ahal izateko eta/edo aurkeztutako merezimenduen ponderazioa eta ordezkatze-poltsan sartzeko interesa dutenek egiaztatutakoak. Horrek azken finean, behintzat, kexaren bultzatzaileak oinarrituriko erabaki bat hartzeko argudioak ez izatera eraman du merezimendu berberetan ponderazio koefizienteen aplikazioan izandako desberdintasuna egiaztatzeko aukera izateari edo ez izateari dagokionez.